

Orona Get Up sarien 4. edizioa

2013/11/18

ORONAKo Giza Baliabideetako Zuzendaria den Mikel Tolosak eman zion hasiera ekitaldiari, ekimen honek unibertsitateekin duen harremana indartzeko, bertako talentua ORONARA erakartzeko eta horrela ORONAK berrikuntzarekin eta etorkizunarekin duen konpromisoa indartzen jarraitzeko duen garrantzia azpimarratu zuen. Pertsonen eta etorkizunaren alde egiten duten apustu honen erakusgarri, Mikel Tolosak Orona Fundazioaren proiektua aipatu zuen. Proiektu hau irabazi asmorik gabekoa da eta Orona Ideoren alderdi gizatiarrena erakutsi nahi du, ORONA osatzen duten pertsoneri eta oro har gizarteari zerbitzua emanaz.

Orona EIC-ko (Elevator Innovation Centre) Berrikuntza Zuzendaria den Antonio Perezek laugarren edizio honetan parte hartu duten ikasleen esfortzua eta aurkeztutako proiektuen kalitatea azpimarratu du, aldi berean, parte hartzea eskertuz.

Orona Get Up sariak ORONAK unibertsitate-ikasketak amaitzen dituzten gazteen ikerketa bultzatzeko ekimen gisa sortu ziren. Sariak aintzatetsi egiten dituzte ikerketa barne hartzen duten eta garraio bertikalean, hiri-mugikortasunean eta eraikinen kudeaketa energetikoan berrikuntzak ekartzen dituzten proiektuak.

4. edizio honetan proiektuak aurkeztu dituzten Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleen artean bik 1. eta 2. sariak lortu dituzte:

1. saria

Laugarren edizio honetan, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ingeniaria den Aritz Marquinez Remon lanak, "Diseño de banco de ensayos de ascensor a escala" izenekoak, Proiekturik Onenaren saria irabazi du, 1.500 eurokoa.

Proiektuaren helburua izan zen igogailu saiakuntzako eskalako banku bat diseinatzea, igogailuaren portaeraren bilakaera aztertzeko, portaera aldatzeko eta ondorioa ikusteko helburuarekin. Azkenean portaera prediktiboa lortzeko xedearekin, bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena eman ahal izateko.

Saridunarentzat, saria jasotzea "poz pertsonal handia izan da, eta egindako esfortzuaren errekonozimendua, nire ibilbide profesionalean lehenengo urratsak indartsu egiten lagunduko didana".

2. Saria

2. saria, 1.000 eurokoa, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Iker Juanena Sanchezek bereganatu du, eta "Herramienta de análisis energético de ascensores" izenburuko proiektuagatik bereganatu du saria.

Lan horretan tresna bat garatu da, Oronako igogailu baten instalazioaren kontsumo energetikoa neurtzea eta erregistratzea ahalbidetzen duena eta, ondorioz, sailkapen energetikoko azterketak egin ahal izatea, nazioarteko araudien arabera. Igogailuetan kontsumitzen den energia minimizatzea elementu estrategikoa da Oronarentzat.

Ikerrek adierazi duenez, "oso harro nago saria jasotzearekin", eta gainera bere poza adierazi du, egindako lanaren aplikazio erreal eta praktikoagatik.



Orona Get Up 2013